

## GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

URTEKO TXOSTENA - 2016

> 2017ko martxoa

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**  
Ogasun eta Finantza  
Departamentua



**Diputación Foral  
de Gipuzkoa**  
Departamento de  
Hacienda y Finanzas

## **AURKEZPENA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak estatistikako azterlanak prestatzen ditu hilero Gipuzkoako enpresen salmentei, kanpo merkataritzari, enpleguari eta soldatei buruz, lurralde horretako enpresen eta ekonomiaren bilakaerari buruzko informazio eguneratua eskuratze aldera. Informazio hau oso tresna interesgarria da departamentuaren eta Foru Aldundiaren jarduketa bideratzeko, eta, interes orokorrekoa denez, Gipuzkoako gizartearen esku jartzen da. Argitalpen honetako informazioa lortzeko, **Gipuzkoan sozietate egoitza duten enpresa ez-finantzarioek** aurkeztutako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitortpenak erabili dira.

Hileroko txosten horien osagarri bezala, urteko txosten hau prestatzen da. Izan ere, enpresa horien BEZaren urteko aitortpenak ere oso erabilgarriak dira; aldagai nagusien urteko bilakaera zein izan den kalkulatzeko aukera emateaz gain, informazio estrukturalari buruzko oso informazio interesgarria ematen du. Dena den, ez da ahaztu behar lagin bat aztertzen ari garela, eta nahiz eta adierazgarritasun handia izan lagin horrek Gipuzkoako ekonomian, ezaugarri jakin batzuk dituela, eta ondorioz, datuak orokortzerakoan kontuz jokatu behar dela.

Urteko aitortpenetan jasotako informazioa hiru atal nagusitan banatuta dago:

1. **Sektorekako sailkapena.** Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan aitortutako epigrafe nagusitik abiatuta, enpresak 20 jarduera talde nagusitan sailkatuta daude.
2. **Enpresen tamainaren arabeko sailkapena.** Horretarako, enpresek 2016an izandako langile kopurua hartu dugu kontuan, eta 5 taldetan banatu ditugu.
3. **Eskualdeen arabeko sailkapena.** Enpresek aitortutako sozietate helbidearen udalerrria kontuan hartuta, eskualdeen arabeko sailkapen bat egiten dugu, eta bertan Donostia beste eskualde bat gehiago da, probintziako hiriburua izateak ematen dizkion berezigarriengatik.

### EZAUGARRI NAGUSIAK

- **2016. urtean Gipuzkoako enpresen salmentak %0,4 handitu dira. Hori horrela izan da barruko salmentak handitu egin direlako (+%1,7); izan ere esportazioak jaitsi egin dira (-%1,8).**


2009an salmentak nabarmen jaitsi ondoren (%20tik gorakoak), hobekuntza txiki bat eman zen 2010- 2011 urteetan, gehienbat esportazioen igoeren ondorioz. Hobekuntza horrek ez zuen jarraipenik izan 2012 eta 2013an; nahiz eta esportazioak portaera ona erakutsi, ez zen nahikoa izan barne merkatuaren portaera txarra konpentsatzeko. 2014an joera aldaketa eman zen, eta salmenta osoak %3,3 igo ziren. Hasiera batean esportazioak izan ziren indar gehiagorekin igo zirenak, baina pixkanaka-pixkanaka barruko salmentak ere indarberritu egin ziren, eta, azkenean, urteko datu metatuetan bi osagaiak antzeko bilakaera erakutsi zuten. 2015. urtea ere indar handiarekin hasi zen, bai barruko salmentei dagokionez eta baita esportazioetan ere. Eta nahiz eta azken hiruhilekoan bi osagaiak pixka bat moteldu bere hazkundera, urtea salmenta osoen +%4,9ko igoerarekin amaitu zen, 2007. urtetik ematen den handiena.

2016. urtea salmenten hazkunderekin hasi zen, baina ekainetik aurrera hazkunde tasa murrizten hasi zen, eta hiruzpalau hilabeteetan datu negatiboak izan genituen. Urteko azken bi hilabeteetan berriro hazkundeak eman ziren, eta azkenean urtea neurrizko igoera batekin amaitu da: salmenta osoak %0,4 igo dira. Eta hori horrela izan da barruko salmenten igoeragatik (+%1,7), izan ere, esportazioak %1,8 jaitsi dira

1. taula. GIPUZKOAKO ENPRESEN ADIERAZLE NAGUSIAK (urte arteko bariazio tasa)

| Δ%   | Salmenta osoak | Barruko salmentak | Esportazioak | Inportazioak |
|------|----------------|-------------------|--------------|--------------|
| 2006 | 7,1            | 6,6               | 8,4          | 11,9         |
| 2007 | 7,1            | 6,1               | 10,0         | 12,3         |
| 2008 | 0,0            | -1,5              | 4,6          | 0,0          |
| 2009 | -20,5          | -20,2             | -21,6        | -37,4        |
| 2010 | 2,1            | -4,6              | 21,6         | 28,4         |
| 2011 | 0,5            | -5,0              | 12,8         | 11,0         |
| 2012 | -5,1           | -8,0              | 0,4          | -8,7         |
| 2013 | -3,6           | -5,4              | -0,5         | -1,0         |
| 2014 | 3,3            | 3,3               | 3,2          | 1,2          |
| 2015 | 4,9            | 3,0               | 8,2          | 11,3         |
| 2016 | 0,4            | 1,7               | -1,8         | -5,6         |

1. grafikoa – SALMENTAK (urte arteko bariazio tasak – 3 hilabeteetako batez besteko mugikorra)




## EZAUGARRI NAGUSIAK

➤ **Gutxitu egin da esportazioen garrantzia Gipuzkoako enpresen salmentetan**

Barruko eta kanpoko merkatura egindako salmenten bariazioan egon den aldearen ondorioz, beraien arteko banaketa aldatu egin da. Horrela, esportazioen pisua salmenta osoen gainean jaitsi egin da 2015ean zuen %37,5etik 2016ko %36,7ra; eta, aldiz, epealdi berean barruko salmenten pisua handitu egin da, %62,5etik %63,3ra.

Krisi aurretik, 2006-2007 urteetan, esportazioen pisua %25-%26 inguruan zebilen; beraz, hamar urtetan 10 puntu baino gehiago irabazi dituzte kanpoko salmentek, nahiz eta 2016 jaitsi izan.

2. grafikoa – Salmenta osoek 2015 eta 2016an izandako banaketa

➤ **Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso handia da**


Nahiz eta esportazioen bilakaera ona ez izan 2016an, Gipuzkoako ekonomiak kanporako irekiera maila oso handia izaten jarraitzen du: saltzen den 100 euroko 36,7 euro kanpoko merkatuetara bideratzen da. Gipuzkoako esportazioen 3 helbide nagusiak, handienetik txikienera ordenatuta, Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua dira; guztira, esportazioen osoen %35a baino gehiago metatzen dute. Eta horrek badu beste ondorio bat: Gipuzkoako enpresak gero eta sentiberagoak direla herrialde horien bilakaera ekonomikoaren aurrean.

Kanpora egindako salmenta horien norakoan gehiago sakonduz gero, portaera desberdina nabarmentzen da. Alde batetik, Europar Batasuneko merkatuetara egindakoak %5,7 handitu dira 2016an; eta, aldiz, Europaz kanpoko merkatuetara egindakoak horren bikoitza baino gehiago jaitsi dira (-%12,2).

Bilakaera desberdin horien ondorioz, EBra egindako esportazioek pisua irabazi dute: %57,8tik %62,3ra pasa dira (4,5 puntu gehiago). Bestalde, munduko gainerako herrialdetara egindako esportazioak %37,7 suposatzen dute (iaz, berriz, %42,2 ziren).

### EZAUGARRI NAGUSIAK


3. grafikoa – Esportazioek EBra eta munduko gainerako herrialdetara 2015 eta 2016an izan duten banaketa



2016an inportazioak ere jaitsi egin dira (-%5,6). Gipuzkoako enpresa askok inportazioak erabiltzen dituzte beraien ekoizpeneko bitarteko produktu bezala; beraz, ekoizpena moteltzen den garaietan inportazioak jaitsi daitezke. Gipuzkoako enpresen inportazioen hornitzaile nagusiak Frantzia, Alemania, Txina eta Italia dira. Lauren artean, inportazio osoen erdia baino gehiago metatzen dute.

Kasu honetan, aztertutako bi eremuek zeinu berdineko portaera erakusten dute, nahiz eta balio desberdinak izan. Horrela, EBtik egindako erosketak %4,7 jaitsi dira, EBtik kanpo egindakoak %8,5 jaitsi diren bitartean. Baina, nahiz eta horren ondorioz bien arteko banaketa zertxobait aldatu, Gipuzkoako enpresen inportazioen ia-ia %80a Europako herrialdeetatik dator.

4. grafikoa - Inportazioek eremuen arabera 2015 eta 2016an izan duten banaketa



Esportazioen bilakaera (-%1,8) inportazioena (-%5,6) baino hobea izan denez, estaldura edo saldoaren ratioa igo egin da: 2015ean %234 zen, eta orain %243 da. Nahiz eta bilakaera hori izan, datu absolutuak oso positiboa izaten jarraitzen du; izan ere, esan nahi du esportazioak inportazioak baino 2,43 aldiz handiagoak direla. Hasieran aipatu dugun bezala, datu horiek aztertutako laginari dagozkio; Gipuzkoako ekonomia osoa kontuan hartuta estaldura ratioa txikiagoa da, %200 inguru; hau da esportazioak inportazioen bikoitza dira.


## SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA \*

➤ **Sektoreen arteko banaketan aldaketa txiki bat eman da 2015. urtearen aldean: industriak eta eraikuntzak pisua galdu dute (%0,6 eta %0,3, hurrenez hurren); eta hori izan da zerbitzuen sektorearen onerako (0,9 puntu irabazi ditu).**

2016. urtean industria eta eraikuntzaren salmentak jaitsi egin dira (-%0,7 eta -%5,4, hurrenez hurren); eta, aldiz, eraikuntzako enpresen salmentek %2,9 igo dira.

Bilakaera horien ondorioz, sektoreen arteko banaketak aldaketa txiki bat eman da. Industria sektoreak salmenta osoen %57,2 da (iaz baino 0,6 puntu gutxiago). Zerbitzu sektorearen salmentak guztizkoaren heren bat baino gehiago suposatzen dute (%37,6, eta 2015ean baino 0,9 puntu gehiago). Eta eraikuntzaren sektoreak, berriz, bere partaidetza iazko %5,5etik aurtengo %5,2ra murriztu du.

## 5. grafikoa - Salmenta osoek sektoreen artean 2015 eta 2016an izandako banaketa




\* Aztertutako laginak bi ezaugarri nagusi ditu: alde batetik, enpresa finantzarioak kanpo geratzen dira; eta bestetik, hilerio BEZaren aitorpena aurkezten duten enpresak bakarrik hartzen dira; hau da, nolabait zerbitzu sektoreak ordezkagarritasun txikiagoa du, eta enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkatuta laginean. Azkenean, bi faktore horien ondorioz, industriaren pisua benetakoa baino handiago da; eta alderantziz, zerbitzuena txikiagoa. Horrela, 2015eko EUSTATen kontu ekonomikoen arabera, Gipuzkoan industriak Barne Produktu Gordinaren %28,0 suposatzen zuen, eraikuntzak %6,4 eta zerbitzuek %64,9.

## SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

➤ **Industria garrantzitsua izan arren, sektore maila xehatuago baten ikuspuntutik, merkataritzaren azpisektorea aipagarriena da, salmenta osoen %23,1 hartzen baitu.**

Sektoreak 20 taldetan sailkatuta, agerian geratzen da merkataritzaren azpisektorea aipagarriena dela 2016an izandako salmenta osoetan (kopuru osoaren %23,1); horren atzetik, tarte luze batera, beste hauek aurkitzen dira: makineria (%16,3), garraio-materiala (%9,2) beste zerbitzu komertzialak (%7,0), eta, azkenik, garraioa eta komunikazioak (%6,9).

6. grafikoa - 2016an salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




2015eko pisuarekin alderatuta, eman diren aldaketa hauek izan dira: 0,6 puntuko igoerarekin irabazirik handiena merkataritza adarrak izan du (%22,5etik %23,1era pasa da); makineriak 0,5 puntu irabazi ditu (%15,7tik %16,3ra), garraio-materialak izan duen 0,5 puntuko igoera berdina (%8,7tik %9,2ra). Ikusi daitekeen bezala, 2015ekin alderatuta pisu gehien irabazi dute hiru adarrak, pisu erlatiborik handiena duten hiru adarrak izan dira. Bestalde, galerarik handiena oinarritzko metalgintzak izan du (1,1 puntu gutxiago, %6,7tik %5,6ra pasa delako); bai material elektrikoaren adarrak eta bai eraikuntzak 0,3 puntu galdu dituzte pisu erlatiboan.

Salmenta osoen bariazioari dagokionez, aztertutako 20 sektoreetatik 10ean igoerak eman dira eta beste 10ean jaitsierak. Handienak honakoetan: kautxua eta plastikoa (+%10,0), kimika (+%6,4) eta garraio-materiala (+%6,1). Beherakada handienak, berriz, adar hauetan eman dira: oinarritzko metalgintza (-%16,2), nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza (-%12,7), eta metalgintzakoa ez den industria (-%10,3).

### SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA


7. grafikoa - 2016an salmenta osoen bariazio handienak eta txikienak izan dituzten adarrak (%)



### ➤ Industria adarrak dira nagusi Gipuzkoako enpresen esportazioetan

Gipuzkoako enpresen kanpo salmenten oinarria ekipo ondasunei lotutako industria adarrak dira: makineriari eta garraio-materialari dagokienez, esportazio guztien %25,4 eta %19,5 dira, hurrenez hurren; oinarrizko metalgintza %9,5 da, metalezko eraikuntzak %7,5 eta metalezko gaiak %7,2. Bost sektore horien artean Gipuzkoako esportazio guztien %69,2a hartzen dute.

8. grafikoa - 2016an esportazioen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)




## SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA

Esportatzaileagoak diren adarren artean, eta 2015aren aldean, oinarritzko metalgintzak pisua galdu du: esportazio osoen %10,7 izatetik %9,5 izatera pasa da, eta iaz baino %13,0 gutxiago esportatu du. Aldiz, garraio-materialak 0,6 puntu irabazi ditu (%18,9tik %19,5era pasa da), izan ere, esportazioak %1,2 handitu dira 2015. urtearekin alderatuta. Makineriak, berriz, adar esportatzaileenak, iaz baino %2,4 gutxiago esportatu du, eta pisua galdu du %25,6tik %25,4ra pasa baita.

- **Garraio-materialaren adarrean salmenten %77,6 kanpoan egiten da, eta enpresen multzo osoaren batez bestekoa %36,7 da**

Esportazioek salmenta guztien aldean zer pisu hartzen duten begiraturik, ikus daiteke hainbat adarretan beren salmenten erdia baino gehiago kanpoan egiten dela.

9. grafikoa – 2016an esportazioek salmenta osoen gainean pisu erlatibo handiagoa duten adarrak (%)



Garraioko materialaren adarrean esan daiteke salmenta osoen ia-ia lau bostenak (%77,6) kanpoko merkatuetan egiten direla; aldiz, enpresen multzo osoaren batez bestekoa %36,7 da. Beste lau adarrek ere erdia baino gehiago kanpoan saltzen dute: oinarritzko metalgintza (%62,2), makineria (%57,4), metalezko gaiak (%54,7) eta metalezko eraikuntzak (%53,9).


## TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA \*

➤ **Enpresa txiki eta ertainek pisu oso handia dute Gipuzkoako ekonomian: salmenta osoen %68,8 egiten baitituzte**

Ezaguna da Gipuzkoako enpresa sarearen barruan enpresa txiki eta ertainak nagusi direla. 250 langile baino gutxiago dutenak halakotzat hartuta, salmentetan duten garrantzi kuantitatiboa handia da, salmenta horien %68,8 egiten baitituzte; hau da, salmentetako 100 euro bakoitzeko, ia-ia 69 euro enpresa horiexek saltzen dituzte.

Bestetik, enpresa handienek (250 langile edo gehiago) salmenta osoen %31,2 egiten dute.

10. grafikoa - Enpresa taldeak 2016an salmenta guztien aldean izandako pisu erlatiboaren arabera (%)



2015aren aldean, korrelazio positibo garbia ikusten da langile kopurua eta salmenten hazkundearen artean. Horrela, 250 langiletik gora dituztenen salmentak %2,7 hazi dira; 100 eta 249 langile bitartekoenak %0,4; 50 eta 99 langile bitarteko enpresen salmentak %2,0 igo dira; eta jaitsi egiten dira 25 eta 49 langile bitartekoenak (-%2,9) eta baita enpresa txikienetan ere (25 langiletik beherakoak), kasu honetan salmenten beherakada %2,7koa da.

\* Aztertutako laginak duen ezaugarri nagusietako bat da, BEZren aitortpena hilero aurkezten duten enpresak hartzen direla; hau da, nolabait enpresa ertain eta handiak gehiago daude ordezkaturik laginean. Beraz, errealitatean Gipuzkoan enpresa txikien dute pisua hemen erakusten dena baino handiagoa izango da.


## TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA

## ➤ Enpresa handienek profil esportatzaile argiagoa dute

2016ko datuen arabera, argi eta garbi geratzen da enpresaren tamaina zenbat eta handiagoa izan kanpoan gehiago saltzen dela. Hori horrela, 250 langile edo gehiagoko enpresek beren salmenta guztien %51,3 saltzen dute kanpoko merkatuetan; enpresa txikienetan, aldiz, %18,7 da. Portzentaje hori argi eta garbi igotzen da enpresaren tamaina handitzen den neurrian

Gaur egun internazionalizazioaren erronka, enpresak mantendu eta hazteko funtsezko faktore bat da. Globalizazioaren testuinguruaren barruan, eta barruko merkatuen gelditzea prozesua ikusirik, kanpoko merkatuetara irekitzea, enpresak zabaldu eta hazteko aukera argi bat da, eta enpresen lehiakortasunean oinarritu behar da. Eta, nahiz eta egia izan lehiakortasuna kanpoko merkatuetan sartzeko funtsezkoa dela, datuen arabera dirudi enpresen dimentsioa eta tamaina ere garrantzitsuak direla.

11. grafikoa – 2016an esportazioen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



## ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA


## ➤ Goierrik du pisu erlatiborik handiena salmenta osoetan

Goierrik lurraldeko salmenta osoen %19,1a hartzen du, nahiz eta 0,8 puntu galdu dituen 2015ean izan zuen %19,9aren aldean; izan ere, salmentak osoak %3,6 jaitsi baitira eskualde horretan. Eta azken hori eman da, esportazioek izan duten beherakadagatik (-%5,6); eta baita, barruko salmentetan jaitsiera eman delako ere (-%0,4).

Bigarren lekuan Donostia dago, salmenta guztien %14,9a metatzen du, 2015ean baino 0,1 puntu gutxiago. Debagoienako enpresak, berriz, hirugarren lekuan daude, lurraldeko salmenta osoen %14,2 metatzen dute, eta laugarren lekuan Donostialdea dago, lurraldeko salmenta osoen %14,0arekin. Azken bi kasu horietan, 2015eko portzentaje berberak errepikatzen dituzte.

Igoerarik handiena Bidasoa Beheako enpresen salmentetan eman da (+%11,1), gehienbat barruko salmentetan hobekuntzagatik (+%13,0), nahiz eta esportazioak ere nabarmen igo diren (+%5,0). Salmenta osoen bigarren igoerarik handiena Debabarrenan gertatu da (+%3,8), eta kasu honetan arrazoia gehiago izan da esportazioen igoera (+%6,4) barrukoena baino (+%1,7).

12. grafikoa - Salmenta osoen pisu erlatiboa eskualdeen arabera 2016an (%)




## ESKUALDEEN ARABERAKO SAILKAPENA

## ➤ Goierriko enpresek beren salmenten erdia baino gehiago kanpoko merkatuetan saltzen dituzte

Oro har, esan daiteke Gipuzkoako ekonomiaren irekiera maila oso altua dela; eta batez ere Goierri, Debagoiena, Debarrena, Tolosaldea eta Urola Kostako enpresena. Horrela, Goierriko enpresek kanpoko merkatuetan beren salmenta osoen %58,6 saltzen dute, eta Debagoienakoak %48,3.

Aitzitik, Donostian esportazioak nekez salmenta osoen %9,1 dira, hau da, lurraldeko %36,7ko batez bestekotik oso urruti dago; horren arrazoia da eraikuntzak eta hirugarren sektoreak (merkataritza, zerbitzuak...) hiriburuan duen pisu handia.

13. grafikoa - Eskualdeen arabera sailkapena – 2016an esportazioek salmenta osoen gainean izandako pisu erlatiboa (%)



### GIPUZKOAKO ENPRESEN SALMENTAK ETA KANPO MERKATARITZA

Estatistiken eranskina

---

#### **Oharra.**

Eranskin honetan jasotako datuen taulak populazio konstantearen arabera datuei dagozkie. Hau da, bariazio tasak bi urtez jarraian zergaldi berean aitortzen duten enpresen gainean kalkulatu dira. Populazio konstantearen arabera bariazio tasa horiek sektoreen koiuntura erakusten dute, eta bariazio demografikoek ez diete eragin. Populazio konstantea definitzen den moduari esker, ez da beharrezkoa erregistratu gabeko datuak egozte

**URTEARTEKO BARIAZIOEN LABURPENA**  
**1 Taula. Salmenta osoak: barrukoak eta kanpokoak.**  
**(urtearteko bariazio tasak,%)**

| Epealdia | Salmenta osoak | Barruko salmentak | Esportazioak |
|----------|----------------|-------------------|--------------|
| 2006     | 7,1            | 6,6               | 8,4          |
| 2007     | 7,1            | 6,1               | 10,0         |
| 2008     | 0,0            | -1,5              | 4,6          |
| 2009     | -20,5          | -20,2             | -21,6        |
| 2010     | 2,1            | -4,6              | 21,6         |
| 2011     | 0,5            | -5,0              | 12,8         |
| 2012     | -5,1           | -8,0              | 0,4          |
| 2013     | -3,6           | -5,4              | -0,5         |
| 2014     | 3,3            | 3,3               | 3,2          |
| 2015     | 4,9            | 3,0               | 8,2          |
| 2016     | 0,4            | 1,7               | -1,8         |

**2 Taula. Salmenta osoak produkzio sektoreen arabera**  
**(urtearteko bariazio tasak,%)**

| Epealdia | Industria | Eraikuntza | Zerbitzuak |
|----------|-----------|------------|------------|
| 2006     | 13,1      | 7,7        | -1,6       |
| 2007     | 7,5       | 11,8       | 5,6        |
| 2008     | 1,8       | 10,5       | -4,8       |
| 2009     | -25,1     | -11,1      | -14,8      |
| 2010     | 6,0       | -21,8      | 2,1        |
| 2011     | 3,5       | -21,6      | 0,3        |
| 2012     | -5,1      | -25,3      | -1,2       |
| 2013     | -4,1      | -17,4      | -0,4       |
| 2014     | 3,4       | 0,9        | 3,4        |
| 2015     | 5,4       | -7,5       | 6,3        |
| 2016     | -0,7      | -5,4       | 2,9        |

**3 Taula. Esportazioak eta inportazioak ingurune geografikoen arabera  
(urtearteko bariazio tasak,%)**

| Epealdia    | Esportazioak |       |                               | Inportazioak |       |                               |
|-------------|--------------|-------|-------------------------------|--------------|-------|-------------------------------|
|             | Guztira      | UE    | Munduko gainerako herrialdeak | Guztira      | UE    | Munduko gainerako herrialdeak |
| <b>2006</b> | 8,4          | 6,3   | 11,7                          | 11,9         | 10,4  | 17,4                          |
| <b>2007</b> | 10,0         | 13,3  | 5,3                           | 12,3         | 10,7  | 18,1                          |
| <b>2008</b> | 4,6          | 4,2   | 5,3                           | 0,0          | -1,6  | 5,3                           |
| <b>2009</b> | -21,6        | -27,1 | -13,2                         | -37,4        | -35,8 | -42,2                         |
| <b>2010</b> | 21,6         | 12,7  | 32,7                          | 28,4         | 32,1  | 16,0                          |
| <b>2011</b> | 12,8         | 20,3  | 4,8                           | 11,0         | 12,5  | 5,3                           |
| <b>2012</b> | 0,4          | 3,2   | -3,1                          | -8,7         | -8,6  | -9,2                          |
| <b>2013</b> | -0,5         | -1,5  | 0,7                           | -1,0         | -1,2  | -0,5                          |
| <b>2014</b> | 3,2          | 10,1  | -5,4                          | 1,2          | 0,5   | 3,7                           |
| <b>2015</b> | 8,2          | 6,0   | 11,4                          | 11,3         | 10,3  | 15,5                          |
| <b>2016</b> | -1,8         | 5,7   | -12,2                         | -5,6         | -4,7  | -8,5                          |

**4 Taula – SEKTOREEN ARABERAKO SAILKAPENA - (urtearteko bariazio tasak,%)**

| Taldea | Izena                              | SALMENTA OSOAK   |                 |                   | BARRUKO SALMENTAK |                 |                   | ESPORTAZIOAK     |                 |                   | ESPORTAZIOAK<br>SALMENTEN<br>GAIN |
|--------|------------------------------------|------------------|-----------------|-------------------|-------------------|-----------------|-------------------|------------------|-----------------|-------------------|-----------------------------------|
|        |                                    | 2015eko<br>pisua | 2016ko<br>pisua | Bar.<br>2016/2015 | 2015eko<br>pisua  | 2016ko<br>pisua | Bar.<br>2016/2015 | 2015eko<br>pisua | 2016ko<br>pisua | Bar.<br>2016/2015 |                                   |
|        | <b>Guztira</b>                     | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>0,4</b>        | <b>100,0</b>      | <b>100,0</b>    | <b>1,7</b>        | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>-1,8</b>       | <b>36,7</b>                       |
| 01     | Nekazaritza, abeltzaintza arrantza | 0,1              | 0,0             | -12,7             | 0,1               | 0,1             | -10,2             | 0,0              | 0,0             | -29,0             | 11,7                              |
| 02     | Energia eta ura                    | 0,5              | 0,5             | 1,3               | 0,7               | 0,7             | -0,7              | 0,0              | 0,1             | 0,0               | 4,7                               |
| 03     | Oinarrizko metalgintza             | 6,7              | 5,6             | -16,2             | 4,3               | 3,3             | -21,1             | 10,7             | 9,5             | -13,0             | 62,2                              |
| 04     | Metalgintzakoa ez den industria    | 1,3              | 1,1             | -10,3             | 1,2               | 0,9             | -19,2             | 1,5              | 1,5             | 1,1               | 48,5                              |
| 05     | Kimika                             | 1,4              | 1,4             | 6,4               | 1,3               | 1,3             | 2,5               | 1,4              | 1,6             | 12,1              | 41,2                              |
| 06     | Metalezko eraikuntzak              | 5,3              | 5,1             | -2,5              | 3,9               | 3,7             | -1,9              | 7,6              | 7,5             | -3,0              | 53,9                              |
| 07     | Metalezko gaiak                    | 4,9              | 4,8             | -0,3              | 3,7               | 3,5             | -4,2              | 6,9              | 7,2             | 3,1               | 54,7                              |
| 08     | Makineria                          | 15,7             | 16,3            | 3,7               | 9,8               | 10,9            | 13,5              | 25,6             | 25,4            | -2,4              | 57,4                              |
| 09     | Material elektrikoa                | 3,5              | 3,2             | -8,5              | 2,7               | 2,6             | -2,2              | 4,9              | 4,3             | -14,2             | 49,3                              |
| 10     | Garraio materiala                  | 8,7              | 9,2             | 6,1               | 2,5               | 3,2             | 29,1              | 18,9             | 19,5            | 1,2               | 77,6                              |
| 11     | Elikagaiak                         | 3,7              | 3,6             | -1,7              | 5,1               | 4,8             | -3,5              | 1,4              | 1,5             | 7,9               | 15,7                              |
| 12     | Ehungintza eta oinetakogintza      | 0,2              | 0,2             | -5,4              | 0,2               | 0,2             | -3,5              | 0,2              | 0,1             | -9,0              | 35,1                              |
| 13     | Zurgintza eta altzarigintza        | 0,5              | 0,5             | -6,1              | 0,5               | 0,5             | 2,4               | 0,6              | 0,5             | -18,1             | 36,4                              |
| 14     | Papergintza eta grafikak           | 3,9              | 3,9             | 0,8               | 4,0               | 3,6             | -7,5              | 3,8              | 4,4             | 14,8              | 41,6                              |
| 15     | Kautxua eta plastikoa              | 1,6              | 1,8             | 10,0              | 1,4               | 1,4             | 1,7               | 1,9              | 2,3             | 19,9              | 48,9                              |
| 16     | Eraikuntza                         | 5,5              | 5,2             | -5,4              | 8,5               | 7,9             | -6,0              | 0,6              | 0,6             | 9,9               | 4,4                               |
| 17     | Merkataritza                       | 22,5             | 23,1            | 3,0               | 31,3              | 32,3            | 4,9               | 7,8              | 7,2             | -9,3              | 11,5                              |
| 18     | Garraioa eta komunikazioak         | 6,9              | 6,9             | 0,7               | 7,7               | 7,6             | -0,1              | 5,5              | 5,7             | 1,3               | 30,2                              |
| 19     | Beste zerbitzu komertzialak        | 6,7              | 7,0             | 4,9               | 10,3              | 10,6            | 4,7               | 0,8              | 0,9             | 13,2              | 4,8                               |
| 20     | Beste zerbitzu ez komertzialak     | 0,6              | 0,6             | 4,2               | 0,9               | 1,0             | 4,3               | 0,0              | 0,0             | 135,3             | 0,2                               |

5 Taula – ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERAKO SAILKAPENA  
(urtearteko bariazio tasak,%)

| TAMAINA                   | SALMENTA OSOAK   |                 |                   | BARRUKO SALMENTAK |                 |                   | ESPORTAZIOAK     |                 |                   | ESPORTAZIOAK<br>SALMENTEN<br>GAIN |
|---------------------------|------------------|-----------------|-------------------|-------------------|-----------------|-------------------|------------------|-----------------|-------------------|-----------------------------------|
|                           | 2015eko<br>pisua | 2016ko<br>pisua | Bar.<br>2016/2015 | 2015eko<br>pisua  | 2016ko<br>pisua | Bar.<br>2016/2015 | 2015eko<br>pisua | 2016ko<br>pisua | Bar.<br>2016/2015 |                                   |
| <b>Guztira</b>            | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>0,4</b>        | <b>100,0</b>      | <b>100,0</b>    | <b>1,7</b>        | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>-1,8</b>       | <b>36,7</b>                       |
| 25 langile baino gutxiago | 17,4             | 16,9            | -2,7              | 22,6              | 21,8            | -1,9              | 9,0              | 8,6             | -6,0              | 18,7                              |
| 25 - 49                   | 13,3             | 12,9            | -2,9              | 16,2              | 15,6            | -2,2              | 8,5              | 8,3             | -4,9              | 23,6                              |
| 50 - 99                   | 15,2             | 15,4            | 2,0               | 16,0              | 16,1            | 2,2               | 13,8             | 14,3            | 1,5               | 34,0                              |
| 100 - 249                 | 23,6             | 23,6            | 0,4               | 22,9              | 22,6            | 0,5               | 24,6             | 25,2            | 0,4               | 39,2                              |
| >=250                     | 30,5             | 31,2            | 2,7               | 22,3              | 23,9            | 9,2               | 44,0             | 43,6            | -2,7              | 51,3                              |

6 Taula – ESKULADEEN ARABERAKO SAILKAPENA (urtearteko bariazio tasak,%)

| ESKULADEAK     | SALMENTA OSOAK   |                 |                   | BARRUKO SALMENTAK |                 |                   | ESPORTAZIOAK     |                 |                   | ESPORTAZIOAK<br>SALMENTEN<br>GAIN |
|----------------|------------------|-----------------|-------------------|-------------------|-----------------|-------------------|------------------|-----------------|-------------------|-----------------------------------|
|                | 2015eko<br>pisua | 2016ko<br>pisua | Bar.<br>2016/2015 | 2015eko<br>pisua  | 2016ko<br>pisua | Bar.<br>2016/2015 | 2015eko<br>pisua | 2016ko<br>pisua | Bar.<br>2016/2015 |                                   |
| <b>Guztira</b> | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>0,4</b>        | <b>100,0</b>      | <b>100,0</b>    | <b>1,7</b>        | <b>100,0</b>     | <b>100,0</b>    | <b>-1,8</b>       | <b>36,7</b>                       |
| Bidasoa Behea  | 7,3              | 8,1             | 11,1              | 9,0               | 10,0            | 13,0              | 4,6              | 4,9             | 5,0               | 22,1                              |
| Debabarrena    | 7,3              | 7,6             | 3,8               | 6,7               | 6,6             | 1,7               | 8,4              | 9,2             | 6,4               | 44,3                              |
| Debagoeina     | 14,2             | 14,2            | 0,5               | 11,3              | 11,5            | 4,2               | 18,9             | 18,7            | -3,1              | 48,3                              |
| Donostialdea   | 14,0             | 14,0            | 0,2               | 16,6              | 16,4            | 0,8               | 9,7              | 9,7             | -1,5              | 25,6                              |
| Goierrri       | 19,9             | 19,1            | -3,6              | 12,6              | 12,4            | -0,4              | 31,7             | 30,5            | -5,6              | 58,6                              |
| Oarsoladea     | 6,8              | 7,0             | 3,7               | 7,4               | 7,4             | 2,2               | 5,9              | 6,4             | 6,6               | 33,3                              |
| Donostia       | 15,0             | 14,9            | -0,2              | 21,8              | 21,5            | 0,4               | 3,8              | 3,7             | -5,7              | 9,1                               |
| Tolosaldea     | 7,1              | 6,9             | -2,1              | 6,7               | 6,2             | -5,3              | 7,6              | 8,0             | 2,4               | 42,5                              |
| Urola Kosta    | 8,1              | 8,4             | 7,7               | 7,4               | 7,9             | 10,1              | 9,4              | 9,1             | 5,0               | 41,5                              |